

Arizmendiarrietaren: mezua eta egindakoa

Aurtengo apirilaren 22an 107 urte betetzen dira on Jose Maria jaio zela, eta, beste batzuetan bezala, data egokia izan daiteke haren figura eta legatua gogoratzeko.

Artikulu labur honetan saiatuko gara 1941ean iritsi zenetik Arrasaten bizi izan zen 35 urteetan zabaldu zuen legatuaren emaitzetako batzuk aurkezten.

1- Ezagutzari buruz:

On Jose Mariak beti esaten zuenez, “...**heziketa da gizartearen ordena gizatiar eta justua sustatzeko euskarri natural eta ezinbestekoa**”.

Ondoko taulan argi jasotzen da Euskadiko Biztanleria Aktiboaren osaeraren 2007tik 2019ra arteko bilakaera (Eustaten 2019ko datuak eta Eusko Jaurlaritzaren 2007ko biztanleria aktiboaren kualifikazioaren gaineko inkestaren datuak).

EAEko biztanleria aktiboa 2007-2019 aldian

	2007 %	2019 %	aldakuntza % (2007an %100)
<i>Ikasketarik gabe edo lehen hezkuntza</i>	33,3	19,9	-40,24
<i>Bigarren hezkuntza + LHI</i>	24,7	23,4	-5,26
<i>LHII+Hirugarren erdi maila+Hirugarren goi maila</i>	42,1	56,7	34,68
 <i>Biztanleria aktiboa guztira</i>	 1.012.720,00	 1.057.196,00	 4,39

Nabarmentzen dugu gure erkidegoak 12 urteko epealdian ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa murrizteko egindako ahalegina, -%40,24 2007ko %100arekiko, eta LH IIan eta hirugarren edo goi mailako ikasketetan egindakoa, %56,7 (+%34,68ko hazkundearekin 2007ko %100arekiko, eta +%14,6ko hazkundearekin biztanleria aktibo osoarekiko).

Bilakaera horretan, kooperatiba taldeak 23 egoitza eta 1.500 pertsona inplikatu ditu, Lanbide Heziketako 3 ikastetxe, MU unibertsitatea eta 4 zentro teknologiko; ikusi Mondragon Korporazioak argitaratutako “Mondragonen eragina Euskal Autonomia Erkidegoan 2020an” lantzen duen txostena.

2- Pertsona eta lana:


Kooperatibak sortzeari dagokionez, on Jose Mariaren planteamendua honela laburbiltzen zen: **Lana garapenaren eta sustapenaren oinarri irmoa da. Batasuna, denon indarrak biderkatzen dituen palanka da. Lankidetzaren elkartasun erregimen bat da guretzat, lana sustapen pertsonalerako eta kolektiborako tresna egokia bihur dadin. (or.445)**

Korporazioaren 2020ko informazioari buruz, zera nabarmentzen dugu:

- Mondragon 258 erakundek osatzen dute (95 kooperatiba dira), horietan 79.931 lagunek lan egiten dute, horietatik %43,9 EAEan, %37,8 gainerako erkidegoetan eta %18,3 nazioarteko merkatuan, eta %49,9 emakumeak dira.
- 2020an 10.865 milioi € saldu ziren, hau da, EAEko 1. industria taldea da, industria enpleguaren %9rekin (17.962 enplegu).


Aurreko guztiaren emaitza da da kooperatiben ingurunean familia errentak eta BPGa sortzen direla. Azterlana: **“SUSPERTZEN- Ispilu kooperatiboa (Begirada kooperatiboa gizartearen etorkizuneko erronkei)”**. ALE, 2022ko martxoa: kooperatibek presentzia handia duten Debagoieneko eskualdean sortutako familia errentak eta BPGa jasotzen ditugu (Arrasate, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara eta Antzuola udalerrriak sartzen dira).

RENTAS FAMILIARES EN M€ POR TIPO DE RENTA (2019)



UN PIB SUPERIOR

EN EL ENTORNO EUROPEO.



Grafikoan ikus daitekeenez, Debagoieneko familia errentetan emakumeak lanean duen presentzia historikoa eta sistema kooperatiboaren kapital errentetan parte hartzea agertzen da.

Hurrengo grafikoak Debagoieneko BPGaren eta Europako %100eko batezbestekoaren eta Europa aldeko beste ingurune batzuen arteko aldea jasotzen da; hori lagungarria izan daiteke MONDRAGON mugimendu kooperatiboaren inguruko ekonomiaren errealitatea ulertzen lagun dezake, Europako batezbestekoan baino errenta (aberastasuna) handiagoa sortzen delarik.


3- Lanaren proiektzio soziala:

On Jose Mariaren legatuak pertsona azpimarratzen du, ezagutza, aberastasuna sortzea, enpresa bere ingurune sozialean errotzea eta errenten banaketa bidezkoa, eta, horretarako, hainbat mezu zabaltzen ditu: **“Eskuz esku, gogoz gogo, berrituta, lanean bata eginda, gure lurralde txikian lan eginez, ingurune gizatiarragoak sortuko ditugu denontzat eta lurralde hau hobetuko dugu”**.

Errenta horien banaketari dagokionez, Suspertzen azterlanean analizatzen dira familia errenten eta errenta pertsonalen ratioak eta 50/10 desberdintasun ratioa alderatzen dira.

Una sociedad más igualitaria


MENOR DESIGUALDAD ENTRE FAMILIAS



Ratio entre la renta media familiar del 20% más alto y del 50% más bajo.

[GRÁFICO 24]
Fuente: Eustat

DESIGUALDADES DE RENTAS PERSONALES (2018)



Interpretación: el ratio en 2018 entre la renta media del 20% más alto y del 50% más bajo.

[GRÁFICO 25]
Fuente: Eustat

Ezkerreko grafikoa familia errenten arteko desberdintasuna aztertzen da lurraldeka, eta, hor, Debagoiena nabarmentzen da desberdintasun txikiagoagatik (Debagoiena 4,24 eta Euskadiko gainerakoan 5,42). Kontuan hartu behar da grafiko horretan sarrerarik handien %20 eta sarrerarik txikien %50 alderatzen direla (konparazio hori asko erabiltzen da estatistika ofizialetan).

Soilik errenta pertsonalak alderatzen baditugu (eskuineko grafikoa), konparazioaren emaitza berdina da (Debagoiena 5,5 eta Euskadi 9,3). Beraz, erraz ondoriozta daiteke kooperatiben presentziak eta sortzen duten balioa banatzeko ereduak laqundu egin dutela inquruan baino gizarte berdinzalea qoa sortzen.

Amaierako hausnarketa: ohar hauetan zehar, on Jose Mariaren legatuaren ahalmena, etorkizuneko ikuspegia eta azken urteetan egindakoaren koherentzia.

Gaur egun, etorkizuneko joera berriei egin behar diegu aurre (geopolitika-Ukrainako gerra, pandemia, globalizazioaren birdiseinua...), baita trantsizioek planteatzen dizkiguten erronkei ere: teknologiko-digitala, klima-energia eta gizarte-demografia.

Ildo horretan, oharretan gaude hauek direla gure indarguneen oinarriak:

- pertsonak prestatzeko ahalegina,
- kooperatiben kudeaketan sormena eta berrikuntza gehitzea, kooperatibak beren ingurune sozialean errotzea eta inplikatzeara,
- kooperatiben arteko elkartasuna, epe luzerako jasagarritasunera eta erresilientziara orientatzea,

2,5 milioi laguneko euskal gizarrean (7.800 lagun gara munduan), non on Jose Mariaren legatuak indarrean jarrai dezakeen, humanoa, eskuzabala eta argia delako.

Jose Luis Jimenez Brea, ALEko kidea